

## GARBIKETAN

*Egia esateko, baserriko aurrerakuntzak ez dira aspaldi-koak. Askotxo beintzat azken urteotan sartu ditugu, lan egiñez irabazi dugun (liru apurrakin erosita sartuak noski. Leendik ere bagenuen indarra, emen urbilleko trokarrotik nere aitonak ekarria; baiña gaurko lan tramankulu asko erabiltzeko aiña indar etzizun ematen; amar bat urte dirala etxeratu genuen indar bernia, askotaz ere altsuagoa, etxean dauz-bague makiña ta tresna guztiak erabiltzeko gai duguna. Ortaz, lenago eskuz egiten genitun gauza asko, gaur makiñaz osatzen ditugu.*

**Doiñu:** «Begiak parrez parrez...».

Txoriak kantatzen zuen  
goizean goizean,  
Jone kan tan zegon  
ereiñotz ostean.

Astero oi zun egin  
erropa garbitze;  
auzoko ur-askatxoan  
arek lana merke,

Ojal, jantzi meetxoak  
eskuz igurtzika,  
ta zapi koipetsuak  
tiñan beratuka.

Lixiba lanerako  
eunak tiñan sartzen,  
gaiñetik miesa bat  
eta autsa zabaltzen.

Ur irakiña gero  
ematen autsari,  
nola baratze-zaiñak  
kortaitza (1) lurrari.

Ur onek auts arteko  
karea dizu urtu,  
ta loi artera jatsiz  
zikin dena kendu,

Au lenago genuen  
gizalditan zear,  
gaur-egunean ez da  
olakorik bear.

Gaur arago bearrez  
gabiltz, biotz-dardar,  
ta garbigailluak or  
denerako amar.

Gure Jone geroztik  
ementxe daukagu,  
garbiketak egiñaz  
etxean gogotsu.

Txoriak du abesten  
lizarraren puntan,  
Jone-k ere darabil  
kantua gogotan.

---

(1) Simaur.

Bebilkit orrelaxe  
pozik eta lerdan,  
aurrai ta neri nainoz  
laguntza ematen.

